



EBAZPENA, 2023ko martxoaren 9koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, Lehendakaritzaren 2023rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa aldatzen duena.

Lehendakaritzako idazkari nagusiaren 2023ko urtarrilaren 18ko Ebazpenaren bidez, Lehendakaritzaren 2023rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu zen.

Gazteria arloko Dirulaguntzen Planaren konfigurazioan akatsak atzeman direnez, Gazteria Zuzendaritzak plana aldatzeko eskatu du.

Eskatutako aldaketaren edukia honako hau da: dirulaguntza lerro bakoitza arautzen duten arauak zehaztea eta lerro berri bat sartzea, Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan parte hartzeko Euskadiko gazteentzako diru-laguntzak (eranskineko 1.5 paragrafoan dago identifikatuta).

Horrenbestez, ebazpen honen xedea da Lehendakaritzaren 2023rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzea, egin nahi diren dirulaguntzen deialdiak eta indarrean dagoen Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusitakoa bat etor daitezen.

Horren ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Lehendakaritzako idazkari nagusiaren 2023ko urtarrilaren 18ko ebazpena aldatzea, Gazteria arloaren datuak eguneratzeko.

Bigarrena.- Lehendakaritzaren Gazteria Arloari buruzko 2023rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea. Plan hori eranskinean jasota dago.

Hirugarrena.- Indarrik gabe uztea 2023rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eranskinean jasota dagoen gazteriaren eskumen-arloari buruzko plangintza. Plan estrategiko hori Lehendakaritzako idazkari nagusiaren 2023ko urtarrilaren 18ko Ebazpenaren bidez onartu zen.

Laugarrena.- Ebazpen hau argitara dadila agintzea, dagozkion bitarteko ofizialen bidez eta, betiere, Lehendakaritzari dagokion webgunean: www.euskadi.eus.

Manu Castilla Albisu
Lehendakaritzako idazkari nagusia